

GURE PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Guk eskainiko dugun zerbitzuan, sukaldatzeko klase alternatibo eta praktikoak emango ditugu, produktu ekologiko, km0 eta plater osasuntsu eta orekatuekin. Bertako profesionalak, sukaldaritza azaltzeaz gain, nutrizionistak ere izango dira, bertako kontsumitzaileentzat dieta espezifikoak sortuz.

Klaseei dagokionez, bertan ikasleak elkartu eta irakasleak hainbat plater egiten erakutsiko die, denak desberdinak, baina egunerokoan ohikoak direnak (babarrunak, zopa..). Ondoren, ikasle bakoitzak plater guztietako tupperrak eraman ditzakete etxera, horrela asteko janariaren zati handi bat prestatua izango dute.